XEDAPEN OROKORRAK

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

4316

AGINDUA, 2011ko ekainaren 16koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailean datu pertsonalen fitxategia sortzeko dena.

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 4.1 artikuluan ezartzen denez, Autonomia Erkidegoko Administrazioko fitxategiak sortzeko, aldatzeko eta ezabatzeko, dena delako fitxategia atxikita dagoen saileko titularraren agindu bidez egin beharko da. Indarrean dauden legeek eskatutako aipamen guztiak jaso beharko ditu agindu horrek, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da. Agindu hori egiteko prozedura xedapen orokorrak egiteko erabakita dagoen berbera izango da.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20.1 artikuluak xedatzen duenez, Administrazio Publikoen fitxategiak Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion Egunkari ofizialean argitaraturiko xedapen orokor baten bidez baino ezin izango dira sortu, aldatu edo ezabatu.

Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuko 2. artikuluak ezarri duenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek Datuak Babesteko Euskal Bulegoari eman behar diote datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu eta ezabatzeko egindako eragiketa guztien berri, Datuak Babesteko Erregistroan sar ditzan. Horretarako, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak 2005eko uztailaren 21ean hartutako ebazpenean onartutako eredu normalizatuaren bidez bidali beharko da xedapena edo ebazpena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Sailak sortu, kendu eta aldatzen dituen eta sail horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak 10. artikuluan zehaztutakoaren arabera sortu zen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuak aipatutako Sail horren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen.

Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailen egitura berrantolatu eta Administrazioko Sailen artean eskumenak berriro banatuta, etxebizitza alorreko datu pertsonalen fitxategiak kudeatzea Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari dagokio. Horrela, bada, Sail horri transferitu zitzaizkion Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak kudeatutako datu pertsonalen fitxategiak, 2005eko maiatzaren 18ko Agindu bidez eta bere ondorengo aldaketez araututakoak, hain zuzen ere.

Ondorioz, aipatu Lege Organikoak eta legezko xedapenek eman dizkidaten eskumenez baliatuz, hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Fitxategiak sortzea.

Datu pertsonalen fitxategi automatizatua sortuko da, «Euskadieuprecios.com» online-tresna baliatuta Euskadiko Eraikuntza eta Urbanizazioaren Prezioen Oinarria erabiltzen dutenen

Erregistroa, alegia, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren datu pertsonalen fitxategi automatizatuei gehituko zaiena. Agindu honetako I. eranskinean dago zehaztuta haien edukia.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak Agindu honen eranskinean jasota dauden datu pertsonalei buruzko fitxategien berri emango die Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, horretarako ezarritako prozedura erabilita, bakoitzak bere erregistroetan inskribatzeko.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 16a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

I. ERANSKINA

FITXATEGIAK SORTZEA

Honako fitxategi automatizatu hauek sortu dira, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak kudeatzen dituen datu pertsonalez osatutakoak:

1.- Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza.

1.1.- Eraikuntza eta Urbanizazioaren Prezioen Oinarria erabiltzen dutenen Erregistroa.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilera:

«Euskadieuprecios.com» online-tresna baliatuta Euskadiko Eraikuntza eta Urbanizazioaren Prezioen Oinarria erabiltzen dutenen Erregistroa sortu.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak:

Eraikuntza sektoreko profesionalak eta enpresak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Interesdunarengandik, transmisio telematikoko formularioaren bitartez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: izena eta abizenak, helbidea (herria eta probintzia), e-maila eta pasahitza.

Enpleguaren xehetasun-datuak: erabiltzailearen lanbidea edo jarduera eta zein erakunde edota enpresakoa den.

e) Datu-lagapenak:

Ez da horrelakorik antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Etxebizitza Sailburuordetzako Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza.

g) Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta horien aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan balia daitezke:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila
Zerbitzu Zuzendaritza
Donostia kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez:

Oinarrizko maila